

2019KO KUDEAKETA TXOSTENA

2019an garraiatutako pertsonak 40.639.356 izan ziren, hain zuzen ere, aurreko urtean baino %4,18 gehiago. Nabarmendu behar da kopuru horren hazkunde-erritmoa –2015az geroztik hazten ari den kopurua da– handitu egin dela 2017aren amaieratik hona.

Zerbitzuaren aldaketekin lotuta, urtarrilean, Cordovillarako zerbitzu berria sortu zen, 5. linea luzatzearen bidez; 4. lineak ibilbidea hobetu zuen Uhartén, Mokarte inguruan igarotzea saihestuta; eta 18. lineak ibilbidea luzatu zuen Zizur Nagusiko urbanizazioaren hegoalderantz.

Martxoan, 9. linea (Renfe-NUP) Eskualdeko Hiri Garraioan %100 elektrikoa den lehen linea bihurtu zen. Apirilean, 20. lineak ibilbidea aldatu zuen, Erripagaña auzoari zerbitzua emateko. Abuztuan, “Geltokiak-Aireportua” A linea ordeztu egin zen, eskaerapeko taxi-zerbitzu erregularra jarrita, hartara, Iruñea-Noaingo aireportuari zerbitzua emanaz hiriaren erdigunetik. Amaitzeko, irailean, Cordovillarako zerbitzua 5. linearen luzapen moduan emateari utzi zitzaion eta 23. linearen luzapen gisa ematen hasi zen. Azken linea horrek, gainera, ibilbidea aldatu zuen Sarrigurengo eta Itaroako merkataritza-industrialdeei arreta emateko.

Inbertsioei dagokienez, 2019an zehar 13 ibilgailu sartu ziren zerbitzuan guztira: %100 elektrikoak diren 6 autobus eta haiek kargatzeko bi gune, linearen buruetan, martxoan, 9. linea, erabat elektrikoa dena, abian jartzeko; eta 7 autobus hibrido, gasolioa eta elektrizitatea erabiltzen dutenak, ekainean (10 metroko luzerako 2 autobus, eta 18 metroko luzerako 5 autobus artikulatu). 2020ko flota-berritzea ere onartu zen, guztira, 16 ibilgailu hibrido eskuratzea erabakita (12 metroko luzerako 9 autobus zurrun, eta 18 metroko luzerako 7 autobus artikulatu).

Martxan diren proiektu nagusiei dagokienez, nabarmendu behar da Iruñerriko Hiri Mugikortasun Iraunkorrek Planoa (IHMIP) amaitu zela. Plan hori, zehazki, Iruñeko metropolialdeko 18 udalerrik, Nafarroako Gobernuak eta Iruñerriko Mankomunitateak sinatutako lankidetzaren batek hasi zuen. 2019an zehar, plan horren finantzaketa-konpromisoa onartu da. Hain zuzen, lehenbiziko fase bat definitu da, 2019-2021 aldirako programatua, eta bertan azterlanak egingo dira, 700.000 euroko zenbateko batekin Hurrengo faseak lehenbiziko horren emaitzen arabera definituko dira. IHMIParen behin betiko dokumentua idatzi ondoren, hura egiteko hitzarmena sinatu zuten 20 administrazioetatik 16k onartu zuten. Azkenik, ekainean 25ean, itzulera-jardunaldi bat egin zen, eta bertan IHMIParen azken emaitzaren gaineko informazioa eman zitzaizen parte-hartze prozesuan esku hartu zuen pertsonen.

EHGaren berrikuntza teknologikoaren proiektua dela-eta, 2019an, zehaztapenen eta proba pilotu bat egin ondoren, Ustiapena Laguntzeko Sistemaren ekipo berriak, ordainbidearenak eta komunikazioen sistema ezarri ziren. 2020aren hasieran, gorabeherak konpontzea eta funtzionaltasun guztiak hedatzea osatuko da. Beste alde batetik, urtarrilaren amaieran, 18. lineako autobusetan, wifi linearen bidez, erabiltzaileak Internetez hornitzea martxan jarri zen; eta martxoan, 9. lineara ere zabaldu zen. Teknologiaren atala bukatzeko, barneko proba pilotu bat egin eta gero, irailean, aplikazio mugikor baten bidez garraioko txartela birkargatzea herritarren eskura jarri zen.

Informazio orokorra

	2018	2019	emendatzea
Zerbitzua ematen den eremua	9.165,46 ha	9.165,46 ha	%0,00

Arreta ematen zaien biztanleak	347.010 bizt.	351.777 bizt.	%1,37
--------------------------------	---------------	---------------	-------

Zerbitzuaren eskaintza

Garraio-sarearen ezaugarriak	2018	2019	emendatzea
Lineak (egunekoak/gauekoak)	25/10	24/10	-%4,00
Eguneko sarearen hedadura (km)	236,90	244,43	%3,18
Gaueko sarearen hedadura (km)	132,64	132,82	%0,13
Eguneko zerbitzuaren ordutegi-tartea	06:30-22:30	06:30-22:30	-
Gaueko zerbitzuaren ordutegi-tartea	22:30-00:30 (ig., al., ar., az., og.)	22:30-00:30 (ig., al., ar., az., og.)	-
	22:30-04:30 (or.)	22:30-04:30 (or.)	-
	22:30-06:30 (lr.)	22:30-06:30 (lr.)	-

Flota	2018	2019	emendatzea
Autobus-kopurua	143	148	%3,50
Estandarrak (12 m)	87	90	%3,45
Artikulatuak (18 m)	53	56	%5,66
Minibusak (9 m)	3	2	-%33,33
Hibridoak	33	40	%21,21
Egokituak (zoru baxua)	143	148	%3,50
Batez besteko adina (urteak)	7,25	7,19	-%0,83

Azpiegitura	2018	2019	emendatzea
Geraleku-kopurua	539	544	%0,93
Markesina eta zutoina dutenak	0	0	%0,00
Markesina dutenak	316	320	%1,27
Zutoina besterik ez dutenak	222	223	%0,45
Altzaririk gabe	1	1	%0,00
SAE taula dutenak	107	110	%2,80
Instalazioak	10.000 m ² (Ezkaba)	10.000 m ² (Ezkaba)	-

Zerbitzuaren maila	2018	2019	emendatzea
Ibilitako kilometro-kopurua	8.012.555	8.017.574	%0,06
- Eguneko zerbitzuan + errefortzuak	7.747.207	7.751.172	%0,05
- Gaueko zerbitzuan	265.348	266.403	-%0,40
Ibilgailuen zerbitzu-orduak	616.080	627.718	%1,89
- Eguneko zerbitzuan + errefortzuak	598.081	609.657	%1,94
- Gaueko zerbitzuan	17.999	18.061	-%0,34

Zerbitzuaren eskaera	2018	2019	emendatzea
Bidaia sinpleak, guztira	39.007.901	40.639.355	%4,18
- Eguneko zerbitzuan	38.238.653	39.811.783	%4,11
- Gaueko zerbitzuan	769.248	827.572	%7,58
Sarean egindako bidaiak	35.890.547	37.340.794	%4,04


Bidaiak, linea bakoitzeko

Eguneko lineak	Bidaiariak
L1 Unibertsitateak	431.878
L2 Nafarroako Gorteen kalea - Etxabakoitz	1.229.551
L3 Zirkularra, mendebaldea: Hirigunea - Antsoain	1.561.176
L4 Barañain - Atarrabia	8.447.631
L5 Orvina 3 - Nafarroako Unibertsitatea	1.317.909
L6 Arrotxapea - Nafarroako Unibertsitate Publikoa	1.094.592
L7 Atarrabia - Txantrea - Barañain	3.809.490
L8 Nafarroako Blanca plaza - Buztintxuri	1.295.283
L9 Renfe - Nafarroako Unibertsitate Publikoa	1.824.745
L10 Belosogoiti - Orkoien	733.556
L11 Ezkaba - Sario eraikina	2.100.515
L12 Ermitagaña - Mendillorri	2.531.903
L13 Geltokiak - Aireportua	27.247
L14 Udaletxea - Arrotxapea	170.746
L15 Sarasate pasealekua - Zizur Nagusia - Ardoi	561.985
L16 Aitzoain - Noain - Beriain	3.465.894
L17 Mutiloa - Artiberri	1.383.051
L18 Zizur Nagusiko urbanizazioa - Sarriguren	3.235.621
L19 Erripagaña - Barañain	1.792.051
L20 Vianako Printzearen plaza - Gorraitz	638.356
L21 Zirkularra, ekialdea: Hirigunea - Antsoain	1.485.715
L22 Merindadeen plaza - Lezkairu	99.189
L23 Cordovilla - Olloki	232.357
L24 Zirkularra: Donibane - Azoka	12.079
L25 Merindadeen plaza - Mutiloarte	293.548
BESTE BATZUK	35.715
Egunekoak, guztira	39.811.783

Gaueko lineak	Bidaiariak
N1 San Ignazio etorbidea - Zizur Nagusia	55.969
N2 Sarasate pasealekua - Barañain	133.517
N3 Labriteko aldapa - Noain - Beriain	51.082
N4 Sarasate pasealekua - Aitzoain	76.912
N5 Nafarroako Gorteen kalea - Uharte	142.660
N6 Nafarroako Gorteen kalea - Mendillorri	54.273
N7 Sarasate pasealekua - Sanduzelai - Txantrea - Nafarroa Beherea	221.829
N8 Labriteko aldapa - Mutiloa	19.738
N9 Sarasate pasealekua - Orkoien	11.692
N10 Nafarroako Gorteen kalea - Sarriguren	59.900
Gauekoak, guztira	827.572

Bidaiak, guztira	40.639.355
-------------------------	-------------------

Txartelen banaketa, motaren arabera



Kudeaketaren adierazleak	2108	2019	emendatzea
Per capita erabilera (ig./bizt.)	112,41	115,53	%2,77
Autobus-aldaketarik gabeko bidaiak, per capita (bidai./bizt.)	103,43	106,15	%2,63
Ibilitako kilometro-kopurua, per capita	23,09	22,79	-%1,29
Zerbitzu-orduak ibilgailuko, per capita	1,78	1,78	%0,51
Batez besteko abiadura komertziala (km/h)	13,01	12,77	-%1,79
Ibilaldiak betetzea	%100,00	%100,00	%0,00
Puntualtasun-indizea	%90,39	%87,91	%2,74